

DIRU-SARRERAK

Gure bezeroentzako tarifa fijo batzuk izango genituzke, tarifa hauek hurrengo taulan agertzen direnak dira:

| ORDUTEGIA | Asteazken | Asteburua |
|----------------------------|-------------|------------|
| Tarifa estandarra | 4€ / orduko | 5€/ orduko |
| Tarifa zerbitzu bereziekin | 5€/ orduko | 6€/ orduko |

Pertsona bakoitzak tarifa berezia ala estandarra izatea aukeratu du, baina kasu batzuetan tarifa berezia ordaintzea derrigorrezkoa izango da, adibidez gure bezero baten txakurra oso agresiboa bada, txakurrak domestikatzeko klase bereziak egongo dira eta klase hauetan egiten dena jabeari jakinaraziko zaio, horrez gain, jabeari txakurra domestikatzeko ahalik eta informazio gehien eskainiko diogu bere txakurrak ez suposatzen arazorik beste bezeroen maskotentzako.

Guri ordaintzeko bi modu ezberdin egongo dira, alde batetik hilabeteko ordaintzeko aukera dago, baina urtero ordaintzeko aukera dago ere bai, gure bezeroek ez dute gutxi ordainduko, azkenean bezero gehienek lanean pasatzen dituzten ordu kantitate kopuruan utziko dituzte beraien maskotak gure eraikuntzan.

Ahala ere gure zerbitzuei esker gure bezeroek ere gastu asko kubrituko lituzkete, adibidez albaitaritza zerbitzuak gure tarifaren barruan egongo litzateke, maskotak ondo elikatuko genituzke eta beste hainbat zerbitzuei esker beraien independenteki egin beharko lituzketen gastu batzuk murriztu edo desagerrarazi egingo genituzke. Gainera beraien maskotak gurekin kontaktuan dauden albaitariengana eramateko eskatuko genieke bezeroei, horrela ez lituzkete 2 albaitari ezberdin izango animaliek.